

IRAKURGAIA

Ez da makala

Egun batean, Maddalen bakarrik joan zen parkera ikastolatik atera ondoren. Neskatilak hango zuhaitz, arbola eta landare guztien izenak ikasi zituen. Ederto bereizten zituen, batez ere itxurari eta hostoen formari erreparatuz.

Halako batean, ordea, ezezaguna suertatu zitzaion zuhaitz batekin topo egin zuen. Egundoko enborra zeukan eta izugarri garaia zen. Hasieran, makala zela iruditu zitzaion, baina gero zur eta lur geratu zen, enborraren goiko aldetik beste zuhaitz mota batzuen adar-hostoak zeudela konturatu zelako.

«Zer zuhaitz ote da hau?», bere buruari galdetu zion neskak, harriturik.

Aitonak irakatsia zion txertaketaren bidez aldaketak egin daitezkeela landareetan.

–Begira, landare baten adar nagusian kontu handiz ebaketa egin eta gero beste baten adartxo txertatzea besterik ez da egin behar –esan zion behin aitonak baserri ondoko baratzean.

Maddalen apur bat urrundu zen, beheko hostailak goialdea estaltzen baitzuen. Adar batzuk izeiarenak zirela iruditu zitzaion; beste batzuk pagoarenak; baziren lizarraren antza zutenak; baziren gerezi itxurakoak...

Gero, berriro enborrera hurbildu eta haren ondoan zegoen idazkia irakurri zuen:

ZUHAITZ HAU EZ DA MAKALA

Testua irakurritakoan, jakin-mina handitu egin zitzaion neskari. Zer esan nahi zuen esaldi hark?

Karlos Santisteban, *Txoriak eta habiak* (moldatua)

Erantzun galderei.

Zeri erreparatzen zion Maddalenek zuhaitzak bereizteko?

Zer zuhaitz mota zela pentsatu zuen Maddalenek?

Zer irakatsi zion aitonak baserri ondoko baratzean?

Zuhaitz erraldoi hark zer beste zuhaitzen adarrak zituen?

Irakurri definizioak eta aukeratu makal hitzari dagozkionak.

- Zuhaitz mota bat, ibaiertzetan hazten dena.
- Trebea, abila; zerbait egiten ona dena.
- Ahula, indar gutxikoa.
- Arrain mota, Euskal Herrian pil-pilean prestatzen dena.

Bilatu irakurgaian hitz hauen sinonimoak eta idatzi. Gero, lotu antonimoekin.

irten	-	baxu
ongi, ederki	-	hurbildu
altu	-	askatu
itsatsi, atxiki	-	gaizki
aldendu, urrutiratu	-	sartu

Aukeratu esapide hauen esanahi zuzena.

Ezezaguna suertatu zitzaion zuhaitz batekin topo egin zuen.

ezezaguna zozkatu

ezezaguna egin

Maddalen **zur eta lur geratu** zen.

lurrean eserita geratu

txundituta geratu

Baziren lizarraren **antza zutenak**.

itxura zutenak

usain txarra zutenak

Lotu esaera zahar hauek esanahi zuzenarekin.

ESAERA ZAHARRAK

Zuhaitz onak, itzal ona.

Ahul dagoenari guztiek eraso egiten diote.

Zuhaitz eroriari, orok egur.

Ona denak guztia ondo egiten du.

Zuhaitza zaharrago, zuzentzen zailago.

Jende zaharraren izaera eta ohiturak nekez aldatuko dituzu.